



the balde



0€

bere igerilari bihotza urdina da  
her swimmer heart is blue

# 21



## the balde

marzelo zelaieta 75  
13. bulegoa  
31014 iruñea  
t. +34 948 12.19 76

kristobaldegi 14  
20014 loiola donostia  
t. +34 943 44 44 22

info@thebalde.net

publi@thebalde.net  
m. +34 639 20 80 22

www.thebalde.net

**argitaratzailea / publisher:** eragin.com · komunikazioa eragin sll

**editore / editor:** iñigo martinez

**zuzendaria / director:** koldo almandoz

**zuzendari komertziala / comercial director & publicitate / publicity:** idoia artxanko

**talde eragilea / promoters:** koldo almandoz, martin etxauri, iñigo martinez, idoia artxanko, unai abarzuza, txuma vazquez.

**diseinua / design:** martin etxauri, unai abarzuza, sonia beroiz, juan luis napal, igor astigarraga, angel burgaña, ekaitz auzmendi, berta osés,

**itzulpenak / translations:** smiley, amaia orella .

**ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue:**

uxeta labrit, angel burgaña, arkaitz billar, eider rodriguez, judas arrieta, txo!?, izaga leihun

**ale honetako argazkilariak / photographers this issue:** eñaut agirre, amaia sagasti, amaia tobés, judas arrieta, naroa perez iguaran

**web orria / web page:** ainara gorostiaga

**ale honetako komikia / comic this issue:** txo?

**ale honetako harpidetza orria / subscription page:** midori

**inprimategia / printed at:** espacegrafic  
**lege gordailua / legal:** na-3244/01



www.creativecommons.org

irudia / image: eñaut agirre



Ian berritzaille, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:  
imaginative, provocative and interesting works? send them to:  
[info@thebalde.net](mailto:info@thebalde.net)

## LABURRAK IN BRIEF

### LA COLIFATA IRRATIA

Argentinako buruko gaitzen Borda ospitaleko gaixo eta gaixo ohien irratia da La Colifata. Hegoamerikako 30 irratiek egiten dute bat larunbatero haiekin euren saio arrakastatsua aireeratzeko. "Colifatek", (eroek) entzuleri fidela lortu dute. Zu ere izan zaitezke "colifata":

[www.lacolifata.org](http://www.lacolifata.org)



### LA COLIFATA RADIO

La Colifata' is the radio station for people who suffer or once suffered from some mental disease in the Borda hospital, in Argentina. The 30 radio stations in South America and 'La Colifata' join together every Saturday for their successful program. The "Colifats" (mads) have a very loyal audience. You can also become a "colifat":

[www.lacolifata.org](http://www.lacolifata.org)



### LAVIDAK

Talde, kolektibo edo dena delako hauen web orri hau definitzeko buruari buelta batzuk eman dizkiogu baina ez dugu hitz aproposik topatu. Bidai kontakizunak, dantza, pelikula eszena aukeratuak, jarduera artistikoak, laud ikastaro trinkoak, artikulak, mendi irteerak... txinatarren dendetan bezalaxe denetarik topatzeko aukera.

## WHAT IS LAVIDAK?

[www.lavidak.org](http://www.lavidak.org)



### LAVIDAK

We have been thinking about a word to define the web page of this band, group or so; but we haven't found any good one. Like in a Chinese shop, we find many kinds of things: travel stories, dancing, some scenes of a film, artistic activities, laud lessons, articles, trips...

[www.lavidak.org](http://www.lavidak.org)



## KIROL ZALETASUNA MUTURRE-RAINO ERAMANA

### JARTOLA KARRAMARRO (uuyy uy uuuuuuuuyyy)


This is the way 310project entitled the video on their web page. There we met Jon Artola. He was on a huge wave in high speed kayak surfing towards some rocks. After watching this video, we thought we were not going to see him again. He has his own web page and it is worth visiting it.

[www.jonartola.com](http://www.jonartola.com)

### JARTOLA KARRAMARRO (uuyy uy uuuuuuuuyyy)

Izenburu hau jarri zioten 310project-ekoek euren webgunean zintzilikatutik duten bideoari. Bertan ezagutu genuen Jon Artola; kriston olatua hartuta zuzen zuzenean harkaitzen kontra abiada bizian zihoala. Eta bideoan ikusitakoak ikusita, gehiago ez genuela ikusiko ere pentsatu genuen. Orain webgune propioa du, eta merezi du bisita.

[www.jonartola.com](http://www.jonartola.com)



## ZINE SOZIALA EZ DA BETI IKUSPEGI MORALISTA BATETIK EGITEN

### ANTZERKIA

Komedia kutsuko antzerki eta umorezko obrak dira gure antzokietan programatzen diren lan gehientsuenak. Hala ere badirudi azken aldian bestelako proiektu berritzaileek ari direla egiten bere tokia. Bai gune aldetik bai ikusle kopuruagatik ere. Besteak beste Harkaitz Canoren, "Ahulkiak", Kandido Urangaren "Henry Bengoa Inventarium" edota Antzerkiola Imaginarioak eta Sagarroik taularatutako "Ezekiel" obrek aire berria dakarte gure eskenatokietara.

### THEATER

Comedy plays are the most successful ones in our theatres. However, lately, other types of new projects have taken their place and have an important audience. There are new plays coming to our stages: "Ahulkiak" by Harkaitz Cano, "Henry Bengoa Inventarium", by Kandido Uranga and "Ezekiel", performed by Antzerkiola Imaginarioa and Sagarroi.



### CINEMA AND HUMAN RIGHTS

The III. Human Rights and cinema festival has shown something we almost had forgotten. Social cinema is not always filmed with emotional blackmail, christian point of view and moral overdose. Turtels can Fly, Omagh, Birthday boy, De beste gar forst and Darwin's Nightmare are films that reaffirm the hope we have in social cinema is not completely lost.



### AIRPLANE FEAR

If you don't like travelling by plane, you'd better read another short piece of news. On this web page there is information about planes that had some difficulties either taking off or landing. Besides, there are loads of pictures and information.

[www.airliners.net](http://www.airliners.net)

### HEGAZKINEI BELDURRA

Hegazkinean bidaiatzea maite ez duzenok ez jarraitu irakurtzen eta pasa beste albiste labor batetara. Web gune honetan, lurra hartzen edo aieratzerakoan arazoak eta hozta-hozta ibili diren hegaldien berri ematen zaigu. Argazki eta argibide ugariz atondua...

[www.airliners.net](http://www.airliners.net)

### ZINEA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Donostiako Zinea eta giza eskubideen III topaketak erakutsi du, ia ahazten ari zitzaigun zerbait: zine soziala ez dela beti xantai emozional, ikuspegi kristau eta moralina gaindosiekin zergatik filmatu behar. Turtels can Fly, Omagh, Birthday boy, De beste gar forst eta Darwin's Nightmare bezalako film izugarriek itxaropen guztia galdua ez dagoela frogatzen dute.



#### GOODBYE TRAMA

Since 2001, there is no problem to get information about comics because then, the Astiberri publishing house published 'Trama' magazine. After the 44th sample, it is clear that both the design and the content have been improved. Taking this into account, they leave us at their best time. Bye.

#### TRAMAK UTZI GAITU

2001 urtetik aitzin komikien munduaren inguruko informazioa eskuratzeko ez genuen arazorik izan, Trama aldizkaria kaleratzen hasi zirelako Astiberri argitaletxeok. 44 zenbaki ostean, bai diseinuan bai edukian izugarritzko hobekuntzak jaso dituela nabaria da. Itxura eta edukiei begiratua behintzat bere momentu hobereanean uzten gaituela dirudi. Aio Trama, snif.



#### FASHION VICTIMS

"...Electronic objects are not only 'smart', they 'dream' - in the sense that they leak radiation into the space and objects surrounding them, including our bodies. [...] *Hertzian space* is three-dimensional and spatial. It is an environment that needs to be fully understood if it is to be made habitable. [...] We believe there is room for a new category of objects that provide complex aesthetic and psychological experiences within everyday life..."

Raby + Dunne - *Design Noir*

#### DO MOVIL PHONES DREAM WITH ELECTRONIC CLOTHES?

What do fashion and mobile phones have in common? What do T-shirts of people around you say? Can fashion be used to think over new ways of human communication? That is what Italian Agnelli Davide, Buzzini Dario and Drori Tal think and that is why they have created the fashionvictims project.

[www.fashionvictims.org](http://www.fashionvictims.org)

## TAMA FADES TO BLACK



#### AMESTEN AL DUTE SAKELEKO TELEFONOEK JANTZI ELEKTRONIKOEN?

Zer dute amankomunean modak eta patrika telefonoek? Zer diote zure inguruan dabilzan pertsonen kamisetek? Erabili al daiteke moda giza komunikazio modu berrien inguruan hausnarketa eta kritika egiteko? Agnelli Davide, Buzzini Dario, eta Drori Tal italiarrek baietz uste dute eta horregatik sortu dute fashionvictims proiektua.

[www.fashionvictims.org](http://www.fashionvictims.org)

#### MADREDEUS

(Maiatzak 3 Baluarte, Iruñea). Saudadea musika egiten denean fado bihurtzen da. Europako blues-a gisa izan da definitua portugaldarren musika estilo hau. Madredeus-ek ez du fadoa egiten baina fadoaren iturrietatik edaten du. 1985. urtetik hona Pedro Ayres Magalhaes, Rodrigo Leao eta Teresa Silgueirok estilo propioa duen musika egiten dihardute gure belarri eta arimaren mesederako.

#### MADREDEUS

(Maiatzak 3 Baluarte, Iruñea). When a saudade is changed into music, it turns into a 'fado'. The music of these Portuguese is known as the blues of Europe. Madredeus doesn't play fados but they have a 'fadoish' background. Since 1985, Pedro Ayres Magalhaes, Rodrigo Leao and Teresa Silgueiro have composed a unique music style for the sake of our ears and souls.

## AINGERUAK METROAN IBILTZEN DIRA

**FIGHT FOR YOUR ROOTS**



**BUILT TO RESIST**  
[www.eastpak.com](http://www.eastpak.com)

edizioak eta inpresioak orokorrean  
 editing and printing in general

# espac<sup>eg</sup>rafic

INPRIMAKIAK  
 KATALOGOAK  
 LIBURUAK  
 LIBURUSKAK  
 ALDIZKARIAK  
 AURREINPRESIOA

FORMS  
 CATALOGUES  
 BOOKS  
 BROCHURES  
 MAGAZINES  
 PREPRINTING


P. I. Mutilva Baja, calle G, nº 11  
 Tel.948 23 93 36 - Fax 948 23 82 16  
 e-mail: [espacgrafic@infonegocio.com](mailto:espacgrafic@infonegocio.com)  
 31192 Mutilva Baja (Navarra)




*Mireia Jaietxea*

Salamanca pasealekua, 3 20003 Donostia • 943 42 40 40

# LACUNZA


 A MEMBER OF THE INTERNATIONAL HOUSE WORLD ORGANISATION

[www.lacunza.es](http://www.lacunza.es)

**At different moments,  
 a different English.  
 Emaizten bila?**



  
 EAQUALS - THE EUROPEAN ASSOCIATION  
 FOR QUALITY LANGUAGE SERVICES



## MINORIAK MASIBOKI MAITE DUEN TALDEA



### THE BALDE LAPURRETA

Getxon the balde banaketa egiten zuen kamioiaren atea ireki eta 21. aleko kaxa bat lapurtu ziguten. Muxutruk banatzen den aldizkari kaxa bat lapurtzeagatik lepoa arriskatzea, delitua baino performance-a dela uste dugu. Musuak eta txalo zaparrada Getxoko Robin Hood-entzat!

### THE BALDE LAPURRETA

A box full of 'the balde' samples was robbed from the delivery truck in Getxo. As it is a free magazine, we consider this a performance rather than a crime. Kisses and applause for this Robin Hood from Getxo.

### BREAK ON STAGE

(Durango maiatzaren 14ean)

Michael Jackson edo Chiquito de la Calzadaren ibiltzeko modua imitatu izan dituen orok esan dezake, modu "sui generis" batean bada ere, break dance-a egin duela. Baina sagardotegi osteko dantzek eta benetako zaletuen mugimenduek ez dute antz handirik izaten. Urte gutxitan, logela multimedial antolatzen duen break dance lehiaketak ospe handia lortu du. Euskal Herria, munduan ezagun egiten duen ekintza horietako bat.

[www.breakonstage.com](http://www.breakonstage.com)

### LISABÖ

"Izkiriaturik aurkitu ditudan gurak" da Lisabö taldeak bere azken lanari jarri dion izenburua. The balden hainbeste maite dugun Pil Pil Sesions—en 5. erreferentzia da disko hau eta beste batzuen artean Experience, Shipping News, Anari, Akazauzte, Manta Ray, Carlos Desastre eta Xabier Erkiziaren kolaborazioa izan dute Lisabökoek. Belarriak prest ditugu...

### BREAK ON STAGE (Durango maiatzaren 14ean)

Those who have imitated Michael Jackson or Chiquito de la Calzada's way of walking can say that, in a way or another, they have practiced break dance. However, the dances after being in a cider house and those of real fans have nothing in common. Recently, break dance competitions have been very successful. This is an activity that makes the Basque Country famous all around the world.

[www.breakonstage.com](http://www.breakonstage.com)



### LISABÖ

"Izkiriaturik aurkitu ditudan gurak" is the name Lisabö has given to their latest record. It's the fifth reference of those interesting Pil Pil Sesions we love so much. In this record you will find people like Experience, Shipping News, Anari, Akazauzte, Manta Ray, Carlos Desastre and Xabier Erkizia. Hey Lisabö!... our ears are ready.

## IS IT POSSIBLE TO STEAL SOMETHING THAT IS FOR FREE?





Beijing, mila milioi biztanle baino gehiago dituen estatu baten hiriburua da. Hiri guztiak hazi eta eraldatzen dira. Beijing-en kasua harrigarria da. Argi sumatu daiteke nola gaur egungo bilakaera ekonomiko eta soziala sortarazi dituen aldaketak, orain dela 40 urte Mao Zedong-en Iraultza Kulturala bezain eradikala dela.

Beijing is the capital of a state with more than a thousand million inhabitants. All cities grow and change. The Beijing story is truly incredible. It's clear to see how current economic and social developments are as radical in their way as Mao ZeDong's Cultural Revolution of forty years ago.

Beijineko paisaia irudikatzen duen leiho zabal bateko hoteleko gelatxo infinitu bihurtzen du. Ametsetako lekua niretzako bakarrik irudikatuz.

An open window that enshrines the Beijing landscape turns the small hotel room into something infinite. It seems as if it's a place found in dreams, but only for me.

真北平

testua eta irudiak / text & images: judas arrieta

BEIJING

txinan internet thebalde

free internet in china

Oilarraren urtearen lehen egunean heldu naiz hona. Txinan, Otsailaren 9-an hasten da harrotasun eta zorztearen urtea.

I arrived here on the first day of The Year on The Cock. In China, the year of pride and good luck starts on February the ninth.

Beijing-en galduko naiz 9 egunez. Yuan-a da Txinako diruaren izena, 6 hizkuntza ezberdinetan idatzita dago yuan. Euroa zenbatetan?

I'll flirt around Beijing for nine days. The Yuan is the name of Chinese currency. It's written in six different languages. How many is the Euro spelt out in?





商品部  
SHOP  
图书 音像制品  
BOOKS AUDIO VIDEO PRODUCT  
纪念品 刻字  
SOUVENIR ENGRAV




Zeru urdin eta argitsuak eguzkiak ez du nahikoa berotzen. Baina hemen denak oporretan daude. Museoak eta atrakzio turistiko esanguratsuenak jendez gainezka daude. Arte garaikideaz gozatzeko aukerak aurkitzea ere erraza da. Erdi aroko gaztelu harresidun batean artista txinatar berrien obrak ikusi daitezke. Bitxia benetan eraikuntza eta arte modernoaren arteko sinbiosia. Ming hilobiak, Harresi erraldoia, Hiri debekatua, Hudong hirigunea,... Gaztetan ikusitako Kung Fu filmeen lekuetan gora eta behera nengoen.

The sun isn't able to heat up the clear, blue sky. But everybody is on holidays here. Museums and the most renowned tourist attractions are full to the brim with people. It's easy to come across the chance to feast your eyes on contemporary art. You can view the work of the latest Chinese artists in a heavily-walled castle from the Middle Ages. The symbiosis between the building and the art work is genuinely peculiar. Ming graves, The Great Wall, The Forbidden City, The city of Hudong... I lost myself in the places I had first seen in those Kung Fu films when I was younger.



Beijing, edozein erosketa egiteko leku aproposa da. Bezero eta saltzaileen arteko ika- mikak eta aurpegi keinu errepertorioa ez dira amaitzen erosi nahi duten prezioa adostu arte. Normalean bezero gehienak turistak dira prezio oso baxuetan denetatik erosten.

Beijing is the perfect place to buy whatever takes your fancy. The repertoire of rows, haggling and facial gestures provided by buyers and sellers is never exhausted until a price has finally been settled on. Normally, most buyers are tourists who buy just about everything imaginable at really low prices.



Ez panda, ez herensugea, Beijing aldean, ahatea da nagusi, ahatea Beijing erara prantatua. Aperitif moduan brokoli egosia ahatearen gibel, bihotz eta giltzurri frijituekin, ondoren, goxo-goxo errea, hoi-sin saltsa eta tipulin gordinekin taloan sartuta. Joan zaitetze ahatearen erritua ikustera; sukaldari armatua, maskarilla ta guzti, eta ahatea bere aurrean. Ebaketa bat egiten duen sendagilearen antzera zerbitzatuko dizuete. Amaitzeko ahatearen hezurrekin egindako sopa ere ematen dute. Mundiala!

Neither the panda bear or the dragon are boss in Beijing. It's the duck. Duck Beijing style. You can have fried duck's liver, heart and kidneys with boiled broccoli as an aperitif. Or, maybe sweetly roasted with hoi-sin sauce and raw onion in a bread cake. Go and see the duck ritual: an armed chef – mask and all – face to face with the duck. A quick surgical slice and you'll soon have our feathered friend served up on a plate before you. And to finish off: soup made from duck bones. Lip-smacking good.

Buru handi bat Beijing-en.  
A big head in Beijing.



Txinatarrek edertasuna eta moda ergelkeriatzat izan ohi zuten, gaur egun, Asiako 2. merkatu kosmetikoa da.

The Chinese used to have nothing but disdain for beauty and fashion. Nowadays, it's the second biggest cosmetics market in Asia.



Beijing uzteko unea heldu zait. Zuri-zuri, hasi gabeko koadro baten antzera, Beijing hiriak agurtzen nauela ematen du. Nik orain arte erantzun diot. Urrats bat emanda ere habitzen da biderik luzeena. Laster bueltatuko naiz emigrante bat izateko.

It's time for me to leave Beijing. White as you like, like an yet to be started painting, it seems as if the city of Beijing is bidding me farewell. I'll see you soon is my reply. Even the longest journey is started with just one step. I'll be back shortly, this time as an emigrant.



Xie xie wo de tien ko!



## exit.editorial exit

Argazkilaritza, bideoa, zine fotogramak eta egun irudi erregistroekin lan egiten duten artisten bilduma egiten du hiru hilabeteko liburu formatuan argitaratzen den EXIT aldizkariak. Ingeleseztan eta gaztelaraz idatzirikoa testuekin apaintzen dituzte argazki eta irudi erreportaiak. Irudiak, estatikoak edo mugimenduan...baina guztiak paperean. Merez du.

This quarterly magazine collects the artists who work on photography, video, film shots and images. Some text in English and Spanish are added to the pictures and the illustrated reports. They are still and motion images. It is worth while.



testua / by the hand

paperpapers

## lektoa.

Gorka Larrañaga/Iranixe. Autoekoizpena

Ukimen organikoa duen serigrafia-dukun paperean egina, irudiz beteta dator. "Geratu den "objektua" eskuz landutako gauzen inperfekzioa eta edertasuna bilatzen du, "objektu" bakoitza bakarra da, zuretzako sortua bere akatsekin. "Objektu" hau sortzerako orduan erabili diren osagai guztiak birziklatuak dira. Erabilpena zein den zuk erabakiko duzu. Egiterako orduan ez da egon inongo helburu handiko pretentsiorik, zerbait polita, jostagarria eta ezberdina sortzea baino. Hortik aurrera sortzen den guztia zure lana da". Ez dugu beste ezer erantsiko.

It is made on a silkscreen printing paper, with an organic touch, full of images: "The remaining object seeks the imperfection and beauty of a hand-made thing; every object is unique; created for you with some mistakes. All the elements used to create this object are recycled. The use of it is up to you. During the creation, we rejected any kind of pretentious aim; we wanted to create something beautiful and different. Whatever is created from now on is your duty." We won't add anything else.




## el elogio de la sombra.

junichiro tanizaki. siruela.

Albako dukesaren semeak, Jacobok, zuzentzen duen Siruela argitaletxea eredu da bai aukeratzen dituen lanengatik, bai eurak diseinatu eta kaleratzerako orduan jartzen duten interesagatik ere. Liburuok, edozein liburu dendatako apaletan daudela begiak hara joango zaizkizu. Kasu honetan Tanizaki-ren obraren edizio berritua aukeratu dugu. Mendebaldeko zibilizazioek distirarako joera dugun bitartean, ekialdekoek itzal eta argien arteko jokoenganako duten joera azaldu eta arrazoitzen da. Saiakera eder, kurioso eta interesgarria.

This publishing house, led by Jacobo, the son of the Alba duchess is an example for the quality of the works they choose and for the great interest in the works they design and publish. You cannot help looking at these books on a book store. This time, we chose the newly edited work of Tanizaki. While Western civilizations have a tendency to dazzle, eastern civilizations like the play of light and shadow. This is a wonderful, curious and interesting attempt.



## Arteleku-Animac.

esku orri / flyer.


Animac animazio jaialdia iragartzeko modu aproposagorik ez dago. Hain zuzen ere papiroflexia aipagai dugun ale honetan, animazioa oinarri duen esku orri edo flyer bereziaz iragarri zen jaialdia egin dute. Papera oinarri eta mugimendua behatzekin bideratuta. 10 bat halako kutizia egitea otu zitzaionarentzat.

There isn't a better way to advertise Animac, the animation festival. They have arranged the festival (using special flyers based on animation) very appropriate in this issue dedicated to origami. Paper as the base guided by fingers. Ten out of ten for the one who thought about such a curiosity.

**BOSS**  
HUGO BOSS



BOSS IN MOTION  
LIMITED EDITION  
NEW FRAGRANCE FOR MEN



## the red carpet

testua / by: izaga leihun

Urteko zine ekoizpena saritzeko aitzakian, modelitoa eta irribarrea erakusteko alfonbra gorriko platoan, urre kolorez pintatutako brontzeko figura bat da telebista saio honen protagonista. 3000 gonbidatu, aktore eta zinema teknikoak arratsaldeko ordu bietatik galaz jantzita, 1500 publizista eta kazetari, hauek ere galaz jantzita eta akreditazioa lepotik zintzilik.

Ia 3 hilabetez Los Angeles gau honetarako prestatzen ibili da, oskarretako sasoia eguberrien amaieran hasi eta sari banaketan gauean amaitzen da, kaleko argi bakoitzean urteko kartela ikusgai. Kodak Theatre inguruko kaleetan hilabete bat lehenagotik hasten dira kale mozketak eta gala egunean ezinezkoa da bertara hurbiltzea limu batean joan ezean.

Alfonbra gorrian, eta mikrofonoen atzetik kamarak daude eta hauen atzean euren bezeroei non gelditu eta erantzuten noiz amaitu esaten dien publizista. Famatuek, utzitako "Haute Couture" eta prezio lotsagarriko pitxiak jantzen dituzte. Alfonbra gorria ganadu feria bat da. Eder eta famatuenean argazki eta elkarrizketa kopururik handiena jasotzen dute eta euren publizistek lan eskerga izaten dute zein komunikabide onartu eta zein ez erabakitzen. Izendatua geroz eta ezezagunagoa, geroz eta lan nekezagoa du bere publizistak merkantzia kazetariei saltzen.

Ospakizuna hasten da, gonbidatuak eseri egiten dira antzokiko eserleku gorrietan, kazetariak eta publizistak backstage-ean geratzen dira, ekitaldia telebista pantaila erraldoietan jarraitzen, edaten, jaten eta tarteka irabazle famatuenean lehendabiziko hitzak jasotzeko korrikaldiak egiten. Irabazleak eskenatokira igotzen dira eta gehienek ez diote jaramonik egiten Tom Hanks-ek, akademiak nominatu guztiei bidalitako DVD an ematen dituen gomendioei. Gomendioen artean diskurtso labur, original eta familiari, zuzendari, ekoizle, agente edo jainkoari eskerrak ez emateko aipatzen du << pentsa 40 milioi pertsona dagoela zuri begira euren etxeetatik... entretenigarria den zerbait entzun nahi dute eta ez zure arbol genealogikoa>> dio Tom Hanks-ek.

Gala telebisatuaren amaiera, famatuak Governor's Ball-era doaz afaltzera, akademiak ematen duen afari ofiziala, gero publizista alboan duela gau horretan ospatzen diren festa ezberdinetako argazkietan ateratzeko "via crucis"-a. Kazetariak ibilbide bera egiten dute detailerik ez galtzeko, zein jantzi aldatu duten, nork nor agurtzen duen, nork ospatzen duen norekin...show handiaren ostean batzuk oraindik azken trago bat hartzeko indarra dute, benetako festa batean eta kamararik gabe.





A bronze figure painted in gold is the protagonist of a TV show, where they reward the best in the film industry that year. This takes place in a theatre whose centre stage is the red carpet where every one shows off what they have. Three thousand people are invited to the ceremony, ranging from actors to technicians. At two in the afternoon they are all dressed in their best clothes. One thousand five hundred journalist and publicists are also "dressed to the nines", with their accreditation on their neck.

For nearly three months Los Angeles has been preparing for this special night. The hype begins around Christmas time and finishes on the night of the Oscars. The shop windows are decorated with a "Red Carpet" and little "Golden Statue", the streets around the "Kodak Theatre" are all cut off a month ahead of the great night. On the long awaited day one can only enter the red carpet in a limo and with the appropriate accreditation.

Once you're on the red carpet cameramen and journalists surround you, and behind each "starlet" they have their own publicist who tells their client where to stop, and who to they should talk to and how long for. The famous all dress in "Haute Couture" and jewellery off immoral prices, which is all leant to them for this special occasion. The more famous and popular one is, the more they are wanted for an interview or photo, in these cases their publicists must be very selective of who can interview them, and with who they take photos with. The more unknown the nominee is the harder the publicists must work in selling their merchandise to the journalist, who have no idea who they are talking to. The ceremony has finally commenced; every one who is invited is seated on the red chairs of the "Kodak Theatre". All the publicist and journalists stay back stage, watching the ceremony on huge television screens, drinking and eating and then running to the pressroom after each important prize is given, to capture the first reaction of the winner. When the winner goes on stage, the majority of them ignore Tom Hanks advice, which is sent to each one of them through a DVD, in which he asks them to be brief, original and they should give a memorable speech. And they should not thank God, their family, nor the director, producer or agent, "think of the forty million viewers who are watching you at home", says Hanks "they want to listen to something funny, they are not interested in your family tree".


It's the end of the show televised on TV. All the famous people go off to have dinner at the "Governors Ball" the Academies official dinner party. Then comes the hardship of having more photos taken in each one of the parties, which takes place that night. The entire journalists make the same route, as to not loose anything interesting which might take place that night. Who changes their outfit, who says "hello" to who, who celebrates with who. After the great show has come to an end, some even find the strength to go and have a drink at a "real party", with out any cameras around, to capture "the real moments"

# ERAGIN.COM



## DOGGY-DOGGY STYLE DESIGN

diseinu grafikoa, internet & argitarapenak • info@eragin.com



golem LA MOREA 12\_areto

golem BAIONA 06\_areto

golem YAMAGUCHI 05\_areto

golem LOS LLANOS 03\_areto

# golem

*goi-mailako  
zinea!*

EROSI TELEFONOZ ZURE SARRERAK

948 222 333 [www.golem.es](http://www.golem.es)


EROSI ORDENAGAILUZ ZURE SARRERAK



## orendainville

argazkilaria / shots : amaia sagasti eta amaia tobes  
modeloa / models : higinia eta noelia







# ENTZUN!

aldizkariarekin  
**FESTIMAD** jaialdira joan!

**ENTZUN!** en harpidetza egin eta **5 bonoren** zozketan parte hartu.

baldintzak:

- Apirilaren 1etik maiatzaren 10era arte **ENTZUN!** en harpidetza egiteko jasotako eskaera guztien artean **5 bono** zozketatuko ditugu.
- Bonorik irabazten ez dutenei DVDa, kamiseta edo liburua oparituko zaie aukeran.
- Irabazleen zerrenda [www.entzun.com](http://www.entzun.com)-en argitaratuko dugu maiatzaren 11n (Entzun! zuzenean jarriko da harremanetan irabazleekin).
- Harpidetza urtebetekoa izanen da eta **15 euro** balio du.
- Harpidetza egiteko beheko formularioa bete (kontu korrontea ezinbesteko baldintza da parte hartzeko) edo bertan eskatzen zaizkizun datuak [entzun@entzun.com](mailto:entzun@entzun.com)-era bidali (azken kasu honetan, aipatu Festimadeko zozketarako dela).

Oharra: Festimadeko zozketan parte hartu nahi duzuenok ez erabili [entzun.com](http://entzun.com)-eko formularioak harpidetza egiteko.



izen abizenak:

helbidea:

herria:

herrialdea:

tlf:

e-posta:

bankua: kontu korronteko zenbakia (20 digito):

.....

Zozketatzen ditugun sarreretako bat irabaziko ez bazenu, hauetako opari bat zuretzako izango da. Bat aukeratu:

Euskal bideoklipen DVDa  Aho bete doinu liburua  Kamiseta

Datuak nora bidali:  
Entzun! Martzelo Zelaieta 75, 13. bulegoa 31014 Iruñea – Nafarroa  
[entzun@entzun.com](mailto:entzun@entzun.com)

zer jantzi?



diseinu grafikoa  
komunikazioa  
web diseinua  
irudi korporatiboa  
edizioa  
maketazioa  
ilustrazioa  
packaging  
publizitatea

estudiobitarte

marcelo celayeta 75 of. 14. 31014 iruñea  
t. 948 38 21 22. f. 948 38 21 22  
[bitarte@studiobitarte.com](mailto:bitarte@studiobitarte.com)  
[www.studiobitarte.com](http://www.studiobitarte.com)

**LADINAMO**  
ASOCIACION CULTURAL



**ALDIZKARIA MAGAZINE  
ARETOA MEETING POINT  
ARGITALETXEA EDITORIAL**

**ANTZERKIA THEATRE  
DANTZA DANCE  
DJ-AK DJS**




[www.ladinamo.org](http://www.ladinamo.org)

c/Mira el Sol, 2  
28005 Madrid


no comment

iruñea • sagardantza



birziklatutako santuak

## SUPERCHANGÓ EN EL CALLEJÓN DE HAMEL



text/by: angel burgaña

Birziklapena Kuban arte osoa da, baita beharra ere. Nolabait artea behartasunak eragiten du. Kubatarrek den-dena bihurtzen trebeak dira: janariak, bihozminak, jantziak, militarrek, latak, turistak, kaleak, santuak...

Kalezulo hau birziklapenaren muina dugu. Bere sorrera Fernando Hamel arma-trafikatzaile alemaniarri zor diogu. XIX. mendearen amaieran arma lantegia sortu eta bere langileentzako etxeak eraiki zituen. 50 hamarkadan etxe hauen auzokoek alde lirikoagoa garatzen hasi ziren, eta La Habana-ko bohemiaren kuartel nagusia bihurtu zen, hainbat musikari eta trobalarien bat-bateko agertokia, Pablo Milanes kalezale horien artean zegoen. Baina egun batean "filin"-aren erritmoak eta desamodioak isildu ziren. Kale txikia berriro birziklatu zuten, eta Salvador González egindako mural-afrokubatarrek Tirso Díaz-en trobak ordezkatu zituzten. Margolari honen bertako jarraitzaileek kalea euren jainkotasunak (orishak) gurtzeko santutegi bihurtu zuten.

Edozein gauza birziklatuekin egindako aldareak daude, santutasun erakusketa ikusgarri bat osatzen, **sinkretismo**aren museoa. Santu ahoskaezin hauek Yoruba tribu afrikarren jainkotasunak ziren. Espainolek Nigeriatik esklabo gisa ekarri zituztenez, euren erritualak ere inportatu zituzten. Beltz hauek ebanjelizatzeke ahalmenak agortu baino lehen espainolek ideia bat izan zuten, Yoruben jainkotasun bakoitza santu katoliko baten ondoan jarri zuten, antza gehien zuenarekin, elkarrekotasun bila. Santu katolikoak birziklatzen, erlijio globalizatua lortu zuten.

elegua



**bere koka-pena**  
Kalez kale ibiltzen La Habana eta biok maitemindu ginen. Erraza da hiri honekin zoratzeta. Norbera hiriekin maitemintzen da, eta ez bere bizilagunekin, ikuspuntu pragmatiko hutsa da; nekagarria deritot 4 milioi lagunekin burua galtzea. Etxearte hau non kokatzen den inoiz ez dizu et jakinaraziko. Nire maitalaren isileko bat da. Kubatarrek egiten duten bezala, «turismo imaginario» egitera gonbidatzen zaituztet. Pista bakarra botako dut. Etxadi bat iparraldera, Pelusak bere desintoxikazio tratamendu bitxia jasotzen ari zen ospitalea aurkitu daiteke. Mundu guztian ezagunak dira Kubako medikuen onurak. Eraikin izugarri honen inguruan beste peleginazio mota bat sortu zen, uharteko "dealer" ospetsuenen erromesa. Baina gure barrilete-kosmikoa beste molde batekin egindako jainkoa dugu, hau ezin da birziklatu, ezta ber-erabili. Ez itzultzeko ontzia da. *Santa Maradona priez pour moi!*

Kale honetan sartu eta bat batean Manu Chao-ren disko baten azalean barneratuko bazina bezala sentitzen zara, hormetan margotutako esaldiak bere hitza gogora ekartzen digu. *Ya Ilegó ya Ilegó Super Changó.*

**SANTA MARADONA PRIEZ POUR MOI!**



## recicled saints

Recycling is an art form and also a necessity in Cuba. Seemingly, need provokes art. Cubans are experts at reusing stuff: food, the pains of love, clothes, the army, tins, tourists, streets, saints...

This back street is the centre of the recycling buzz. The street was built by German arms dealer Fernando Hamel when, at the end of the 19th Century, he built an arms factory and houses for his workers. In the 50s, the residents of the area started to develop their more lyrical side and the area soon became known as the bohemian part of La Havana and the local hangout for musicians and troubadours. Pablos Milanes is a son of these streets. But one day, the rhythms of "feeling" and lost love disappeared, and the small street was recycled once more. Salvador Gonzalez's Afro-Cuban murals replaced Tirso Diaz's music. The painter's local followers turned the street in shrine where they could worship his godliness (orishak).

There are alters made from almost every recyclable thing, and they all go together to form an extraordinary exhibition of saintliness in this museum of syncretism. These unpronounceable saints were the African Gods of the Yoruba Tribe. When the Spanish brought over from Nigeria as slaves, they brought their rituals and beliefs with them. It seemed that efforts to evangelise these people would fail utterly, until the Spanish hit upon an idea: they placed each Yoruba God beside the Catholic saint they most resembled, and in this way they achieved assimilation through association. The achieved religious globalisation through the recycling of Catholic saints.

### Where is it? (cocaine xacobeo)

La Havana and I fell in love with each other as I wandered through its streets. It's easy to go crazy about this city. You fall in love with the city, and not with its inhabitants for a purely pragmatic reason; the mere idea of losing my heads over four million people exhausts me. I'll never tell you where this street is. It's one of my secret lovers. I, as the Cubans themselves often do, invite you to do some "imaginary tourism". I'll give you just the one clue. To the north of this block, you can find the detox centre where Pelusa (*Maradonna*) underwent his rather unusual treatment during his stay in Cuba. The wonders of Cuban medicine are known throughout the world. That building also became the centre point of pilgrimage for all the most famous dealers on the island. But our cosmic little barrel is made of other stuff and can't be recycled or re-used. It's a non-refundable bottle. *Saint Maradonna, pray for me!* When you turn onto this street, you immediately feel as if you have been transported to the cover of a Manu Chao record, and the words written on the wall bring his lyrics to mind. *Ya Ilegó ya Ilego Super Changó.*

Bazatoz  
gurekin  
Londresera?

¿Vienes  
con nosotros  
a Londres?

Adivina quiénes somos en  
[www.gazteaukera.euskadi.net](http://www.gazteaukera.euskadi.net)

Asmatu nor garen  
[www.gazteaukera.euskadi.net](http://www.gazteaukera.euskadi.net)  
web orrialdean



## bizitza gazta bat da

Zerk bultzatzen ditu dozenaka gizon eta emakume larre aldapatsu batetan beheara euren buruak kamikazeen moduan botatzea?

Gazta. 7 liberako pisua duen Gloucester gazta bat da ausart hauen artean irabazle bakarrak jasoko duen saria. Gazta horren irabazleak ergel ezizena irabazten duela pentsa dezake askok. Bai, akaso bai. Baina beste askorentzat "gizakien artean jaingo" izendatzen du gazta horrek. Urtero, Gloucesterren dagoen Cooper Hill-eko larre maldatsuan errepikatzen den ohitura da. Dirudienez ospakizun honek oinarri historikoak ditu. Historiagileek feniziarrek aipatzen dituzte, erromatarrek eta leinu britaniarrak ere ageri dira, baina ez gaituzten bidetik okertu, guri eta urtero bertara inguratzen den milaka ikusleei beste zerbaitek erakartzen gaitu: Hezur kraskatze sinfoniak, muskuluak tolestean sortzen duten musika, odöl harien bíbratoak. Gazta ehiztari hauek bizitza arriskatzen dute ( 3 partaideetatik 1ek ospitalean amaitzen du eguna ) gazta baten ordainean. Gazta ez delako soilik gazta. Géhiago da. Zergatik igotzen da gizakia mendietara? Zertarako jaitsi leize eta ur hondoetara? Zergatik lasterka egin atzetik zakurrik izan gabe? Ergelkeria. Bai. Ados. Lepoa, burua, hezurrak, bizitza larre batean kraskatzea inozokeria dela pentsa genezake. Guk ere asko dakigu hortaz. Gurean harriak jasotzen ditugu, hankak mozkortu arte garraiatzen ditugu txingak eta aizkoraz, jadanik moztuak dauden enborrak mozten ditugu. Kanpotarrek ze begiekin ikusten gaituzte? Ez al dute ba guk garai batean ikusten genuen "Txino Kudeiroz" betetako " Humor Amarillo "-ren euskal bertsioa izango Japonian?

Ergelkeriak bai, baina galduta geundeke tarteka ergelkeriarik egin gabe. Ez al dira adibidez maitasuna, aberria, edo arrakasta ergelkeria hutsak?

Bai thebaldero maiteok: Bizitza gazta bat da.



# life is a cheese

What on earth drives dozens of men and women to storm down a grassy hillside in kamikaze fashion, risking life and limb?

Cheese. A seven-pond Gloucester cheese is the one and only prize that the single daring winner will take away with them. Many will be quick to remark that what the winner actually gains is the title of fool. And they may be right. But for many others that cheese crowns them "God amongst men". It's a tradition that is repeated every year in a steep field in Gloucester called Cooper Hill. It seems that the event is steeped in history. Historians talk of the Phoenicians, and the Romans and the British lineages are also mentioned. But let's not get sidetracked on the issue, it's another thing altogether that attracts us and thousands of others along every year: the symphony of cracking heads, the melodious music of thorn muscles and the pulsing streams of blood. These cheese hunters risk life and limb (one in three participants ends up in hospital) for a cheese. But it's not just a cheese. It's more than that. Why do people climb mountains? Why go deep down into the bowels of the earth or into the murky depths of the seas? Why race away if we're not being pursued by rabid dogs? Sheer folly. Yes. We agree. You wouldn't be wrong in thinking that risking neck, bones, head and life on a grassy knoll is nothing short of ridiculous. We know a lot about that type thing in this neck of the woods. We lift up huge stones, heave along monstrously heavy txingas (two 50-kilo lumps of steel shaped like an elongated bucket, one carried in each hand) till our legs buckle beneath us and chop up huge tree trunks that have already been chopped up. What must foreigners think as they gaze at the spectacle we offer up? Do they not have a Basque version in Japan of those crazy Japanese video programmes we used to watch? Folly it may just be, but we'd be lost without it. Are love, nationality and success not other examples of pure and simple folly?

Yes, my dear thebalders, life is a cheese.






Summer Jewyns collection

'05

**skunkfunk**  
www.skunkfunk.com

0034-94 625 79 22



Tolestu (oru) papera (kami) da hitzaren esanahia japonieraz. Denbora alperrik galtzearen ikono bihurtu den paperezko txoriaren atzean historia eta jardura artistiko aberats bat dago. Guri hala ere denbora galtzearena ongi iruditzen zaigunez, bulegoko ordu amaigabe horietan eta ordenadorean pornoa ikusteaz aspertzen zarenerako zure eskuak okupaturik mantenduko dituen beste jardura honen inguruak azalduko dizkizugu. Nagusiak denbora galtzen ari zarela esaten dizunean, zuk ondorengoa bota diezaiokezu.

Inork ez daki zehazki origami-a noiz asmatu zen. Baina paperaren asmakuntza k.a 105. urtean Tsai Lun txinatarrari egotzen zaionez, hari ematen zaio lehen paper tolestaille titulua. Papera k.o. seigarren mendean eraman zuten mojie budistek Japoniara. Asmatu zenetik gure egunetarako, papera, objektu eta tresna preziatua izan da Shin Chan-en jaioterrian. Egunerokotasunean oso txertatua dago paperaren erabilera. Japoniar etxeetako arkitektura ezin da egurra eta paperik gabe ulertu, adibidez.

Aitzinean, zeremoniak apaintzeko, monje shintoistek paperez eginiko eskulturatxoak enkargatzen zizkieten herrietako emakumeei. Arte horrek berehala izan zuen garapena. Kami hitzak, papera esanahia izateaz gain, jainkoen izpiriua izendatzeko ere erabiltzen bai da. Hala ere, aitzineko artea izanik, 1797. urtera arte ez zen argitaratu origami plano edo instrukziorik. Ordura arte, papera tolestearen artea emakumezkoen jardura izan zenez, amek, idazteko aukerarik ez zutenez, ahoz irakasten zieten alabei papera tolestearen arte hau.

Egungo origami garaiaren herrialdean garatu zen papera tolestearen artea, baina XXII. mendean eta munduaren beste puntan, arabiarren ilargipean argituta bizi zen Iberiar penintsulan paper testura berriak landu eta garatu ziren. Musulmanen erlijioak ez duenez jainkoaren irudiaren errepresentaziorik onartzen, papera beste zereginetarako erabili zuten: matematika eta geometria irakaspen eta garapenerako. Iberiar penintsula utzi zutenean, espainiarrek irakaspen hauei jarraituaz papera tolesteko artea garatu zuten eta paproflexia izena eman zioten.

Egungo origami garaiak asko zor dio Akira Yoshizawa maisuari. 1950. urtean hasi eta gaur eguneraino bere ikerketa eta origami lan guztiak argitaratu eta zabaldu dituelako. Origamiaren historia eta aitzinako lanak jasotzeaz gain, paper tolestea dimensio berrietara eraman du, paper testura berriak bilatuaz, paper hezea bezalako teknika berriak garatuz, eta modelo eta forma berri eta garaiak sortuz.

Zure nagusiak paperezko txori edo hegazkina egiten ikusi edo eta asteburutik sobratu zaizun droga papelinarekin bueltaka harri patzen bazaitu...badakizu... ez zabilta denbora alperrik galtzen... kamiekin kontaktuan jartzen ari zara aitzinako arte bati esker...

# origami

The word means fold (oru) paper (kami) in Japanese. The folded paper bird has become a symbol of time-wasting but there's quite a bit of enriching artistry there in amongst the feathers. Anyway, we like the idea of wasting time, so for when you get bored with looking at the clock on the office wall or porn videos on the computer, we're going to introduce to a neat little pastime that will keep your hands busy. The next time your boss accuses of wasting time, you can kindly inform him of the following.





No-one knows just when origami was invented exactly. But seeing as the Chinese Tsai Lun is credited with inventing paper in the year 105 BC, he's awarded the title of first paper folder. Buddhist monks brought paper to Japan in the sixth century. Since it was invented, paper has been a highly prized object and work tool in the land of Shin Chan. Paper is a major part of everyday life. You wouldn't be able to understand Japanese architecture without wood and paper, for example.

Long ago, Shinto monks got village women to make little paper sculptures to adorn their religious ceremonies. It very quickly developed as an art form. The word kami, apart from meaning paper, is also used to name the spirit of the gods. However, as an ancient art form, there were no published diagrams or instructions until 1797. Until then, the art of folding paper was carried out by women, and as women didn't have the chance to write anything down, mothers taught their daughters the art by word of mouth.


The art of folding paper started in the land of the rising sun, but in the twelfth century, and on the other side of the world on the Iberian Peninsula, the Arabs developed new and different textures of paper. As the Muslim religion does not allow any images of their god to be drawn, the paper was used for other things. For the teaching and developing of mathematics. When they left the Iberian Peninsula, the Spanish carried on with their studies and they also developed a paper folding art form they called papiroflexia (paper-folding).

Contemporary origami is deeply in depth to the master Akira Yoshizawa. He started work investigating and creating origami in 1950 and he has published and distributed his work and findings ever since. As well as telling us the history of origami and ancient origami works of art, he has taken paper folding to a new dimension by seeking out new textures of paper, by developing the wet paper technique and by coming up with innovative and contemporary shapes and sculptures.

If your boss sees you making paper birds or planes or if he catches you with your little paper fold with the drugs you have left over from the weekend... well, you know what the story is...you're not wasting time...you're getting in touch with kami thanks to an ancient art form.



bilatu instrukzioak alean hor nonbait!  
look for instructions inside the issue!



On his way to the office, he was silently shot and died silently



Hamar urterekin jaio zen Handala, Najik zuen adina  
Palestinatik bota zituztean




# han

testua /by: eider rodriguez

Handalak Mkatza esan nahi du  
Mutil goibela baina duina dela  
diote.

# da

# la



**Iraupena:** 2 minutu eta 13 segundo.

**Gaia:** Komikilari satiriko bat (Naji Al Ali), palestinarra, Mafaldaren moduko pertsonai bat asmatu zuena (Handala) baina arabiarra; eta horregatik garbitu zuten, Londonen.

**Irakurketaren errentagarritasuna:** Kontuan izanda morroi batek 13 urtetan zehar egindako lana laburbildu nahi dela, irakurketaren errentagarritasuna handi xamarra da, orrialdearen aurrean ematen duzun segundoko, morroiaren bizitzaren 3084511,6 segundoren jabe izango zara eta:

Urte bat= 31556926 segundo


13 urte= 410240038 segundo

Artikuluaren iraupena= 133 segundo

Hirukote erregela eginda errentagarritasuna ateratzen da.

Naji Al Ali Palestinako Ash Shajara herrian jaio zen 1936an, baina komikilari arabiar ospetsuena bilakatuko zen mutiko begi ilunari, jaio eta gutxira suntsitu zioten herria. Libanoko errefuxiatu esparru batera bidali zuten, bizilagun, oilo, txakur eta familiarekin.

Hamar urterekin jaio zen Handala, Najik zuen adina Palestinatik bota zutenean. Handala ez da Kinder arrautzak iragartzen dituzten haur musugorri horietakoa, ez eta amaren gonapean ezkututzen den ume mainontzia. Ez du Handalak gizentasunak ematen duen zorion eta axolagabezia. Ume zatar marraztu zuten eta ilearen ordeztu arma gisa darabiltzan triku arantzak dauzka. Handalak ez daki bere oinetakoen neurria zein den, errefuxiatu



esparruetako mutikoak bezala, ortozik baitabil munduaren gainean. Eskuak atzean emanda ibiltzen ditu beti, AEBek palestinarrei luzatzen dizkien bosteko zuri zikinen errefusaren seinale.

